



**école
ensemble**


Right to Education



Organisation Mondiale pour L'Éducation Précoce
World Organization for Early Childhood Education
Organización Mundial para la Educación Preescolar



The Global Initiative
for Economic, Social and Cultural Rights

GUTUN IREKIA EUSKO LEGEBILTZARRARI HEZKUNTZA-AKORDIOARI BURUZKOA

Gutun hau sinatzen dugunok kezka handiz jaso dugu Hezkuntzaren lege berrirako Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat legebiltzar-taldek sinatutako akordioa.

Akordioaren ustezko helburua “gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzaren erronkei” erantzungo dien lege berria idaztea da. Baina, itunaren testua irakurrita, egungo hezkuntza sistema duala sendotzen duela ikusi dugu. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoa ikastetxe itunduen portzentaje handiena duen Europako eskualdeetako bat da, ikastetxeen erdiak kudeaketa pribatukoak baitira, baina publikoki finantzatuak. Sistema dual hori, ebidentziak erabat frogatu duen bezala, gero eta bereizitagoa den eskola-sistema bat sortu du Euskal Autonomia Erkidegoan. Eskola publikoak ia eskusiboki hartzen du babes gutxien dituen ikasleak (klase-arrazoiak, jatorria, nazionalitatea, etnia, eta abarreatatik) eskolatzeko ardura. Itunduek, aldiz, "babesleku" gisa funtzionatzen dute klase ertain altuko bertako familientzat. Beraz, nahiz eta akordioaren ustezko asmoetako bat eskola segregazioaren aurka borrokatzea den, itunpeko eskolen egoera indartzen den bitartean porrota besterik ez du ekarriko.

Ildo beretik, Abiyanen printzipioek diotena gogoratu behar da. Printzipio hauek hezkuntza eskubidearekin erlazionatutako giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen araudia xehatu eta jaso egiten dute. Honekin batera, hau aurrera eramateko orientabideak ematen dituzte, sektore pribatuak hezkuntzan duen parte hartzea gero eta handiagoa den errealitate honetan. Jakinaenez, Abiyanen printzipioak giza eskubideetan eta hezkuntzarako eskubidean adituak diren nazioarteko 57 jakitun jaso eta idatzi zituzten, eta gaur egun ezinbesteko erreferentzia dira hezkuntzarako eskubideaz arduratzen diren erakundeentzat, hala nola, NBEko Giza Eskubideen Kontseilu, NBEko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulego eta Giza Eskubideen Amerikarteko Batzorde edo Gizarte Eskubideen Europako Batzordearentzat. Hain zuzen ere, Abiyanen Printzipioek adierazten dutenez “hezkuntza-erakunde pribatuekiko finantzaketa publiko oro iraupen jakineko neurritzat hartu behar da”. Beste era batera esanda, finantziaketa hori aldi baterako neurri bereizitatzat ulertu behar da, betiere aukera publikorik egon ezean (65. printzipioa). Noski, hau ez da Euskal Autonomi Erkidegoaren egungo errealitatea.

Beste esperientzien alderatzeak agerian jarri du hezkuntza akordio berriak eta ondoren etorriko den hezkuntza lege berriak egungo eredu duala areagotuko duela, bereizitako eskola sistema bultzatuz eta ondorioz, gizarte segregatu bat eraikiz. Gizarte eredu edo errealitate honetan,

hiritarrek (bereziki dirudunek / klase sozial altuko hiritarrek) gero eta konfiantza gutxiago dute “desberdintzat” hartzen direnengan, eta gero eta gehiago isolatzen dira beraien pribilegiozko buruiletan. Euskal Autonomi Erkidegoan ez dugu hori nahi eta horregatik dei egiten diegu Eusko Legebiltzarreko kideei, lege berriaren ardatz nagusiak eskola publikoaren indartzea eta eskola-segregazioaren aurkako borroka izan daitezen.

- Matías Cordero Arce, *Gasteizko Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformaren* izenean
- Zsuzsanna Nyitray, *Global Initiative for Economic, Social and Cultural Rights* izenean <https://www.gi-escr.org/>
- Delphine Dorsi, *Right to Education Initiative* erakundearen izenean <https://www.right-to-education.org/es/page/la-educaci-n-como-derecho>
- Stéphane Vigneault, *École Ensembleren* izenean, Québec <http://www.ecoleensemble.com/>
- Mercedes Mayol Lasalle, *Eskolaurreko Hezkuntzarako Munduko Erakundearen* izenean <https://omepworld.org/es/inicio/>
- Julio Rogero, Getafeko *Colectivo MRP Escuela Abiertaren* izenean <http://colectivoescuelaabierta.org/>
- Víctor Gutiérrez, *Voces de la educación* aldizkariaren izenean, México, <http://www.revista.vocesdelaeducacion.com.mx>
- Maggy Barrère Unzueta, Zuzenbidearen Filosofiako katedraduna eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko zuzendaria (UPV/EHU).
- Eduardo Zelaieta Anta, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko dekanordea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Igone Palacios Agundez, Matematika, Zientzia Esperimental eta Sozialen Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Aritza Saenz del Castillo Velasco, Matematika, Zientzia Esperimental eta Sozialen Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Maitane Basasoro Ziganda, Didaktika eta Eskola Antolaketa Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Héctor Galindo Domínguez, Didaktika eta Eskola Antolaketa Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Imanol Santamaria Goicuría, Didaktika eta Eskola Antolaketa Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Andrea Perales Fernández De Gamboa, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Karla Fernández de Gamboa Vázquez, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

- Alexander Gurrutxaga Muxika, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Ainhoa Gómez Pintado, Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Jon Urraza Intxausti, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Itsaso Madariaga López, Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Alfredo López De Sosoaga López De Robles, Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Txabi Arnal Gil, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Arantza Rico Martínez, Matematika, Zientzia Esperimental eta Sozialen Didaktika Saila, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Ana Berreteaga Escudero, Matematika, Zientzia Esperimental eta Sozialen Didaktika Saila, Bilboko Hezkuntza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- Beñat Sarasola Santamaría, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika saila, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV).
- Marina Subirats Martori, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologiako katedradun emeritua. Bartzelonako Udaleko hezkuntzako zinegotzi ohia.
- Miguel Ángel Santos Guerra, Malagako Unibertsitateko katedradun emeritua (Hezkuntza Zientzien Fakultatea).
- Juana María Sancho-Gil, Hezkuntza Teknologietako katedradun emeritua, Didaktika eta Hezkuntza Antolaketako Departamentua, Bartzelonako Unibertsitatea.
- Martín Rodríguez Rojo, Valladolideko Unibertsitateko irakasle emeritua (Hezkuntza Fakultatea).
- Jurjo Torres Santomé, Didaktika eta eskola-antolamenduko irakasle emeritua, Coruñaiko Unibertsitatea.
- Francisco Javier Murillo, Gizarte Justiziarako Hezkuntzako UNESCO Katedraren zuzendaria, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- Pilar Ballarín Domingo, Hezkuntzaren Teoria eta Historiako katedraduna Pedagogia Sailean, Granadako Unibertsitatean.
- José Ignacio Rivas Flores, Malagako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko Didaktika eta Eskola Antolakuntzako katedraduna.
- Rafael Porlán Ariza, Sevillako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko Zientzia Esperimental eta Sozialetako Didaktikako katedraduna.
- Ángel Pérez Gómez, Eskolako Didaktika eta Antolakuntzan katedraduna, Malagako Unibertsitatea.

- Francisco Imbernón, Didaktikako eta Hezkuntza Antolaketako katedraduna, Bartzelonako Unibertsitatea.
- Jaume Sureda Negre, Didaktika eta Eskola Antolakuntzako katedraduna, Universitat de les Illes Balears.
- Rafael Feito Alonso, Soziologiako katedraduna, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
- Luis Torrego Egido, Pedagogiako katedraduna, Valladolideko Unibertsitatea.
- Juan de Pablos Pons, Eskolako Didaktika eta Antolakuntzan katedraduna, Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Sevillako Unibertsitatea.
- Javier Marrero Acosta, Didaktika eta Hezkuntza Ikerketako katedraduna, La Lagunako Unibertsitatean.
- Rosa Vázquez Recio, Didaktikako irakasle titularra, Cadizeko Unibertsitatea.
- Teresa García Gómez, Eskolako Didaktika eta Antolaketako irakasle titularra, Almeriako Unibertsitatea.
- Enrique Javier Díez Gutiérrez, Leongo Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateko irakasle titularra.
- Rocío Anguita Martínez, Pedagogiako irakasle titularra, Hezkuntza eta Gizarte Laneko Fakultatea, Valladolideko Unibertsitatea.
- Jaume Martínez Bonafé, Eskola Didaktika eta Antolaketako irakasle titularra, Valentziako Unibertsitatea.
- Carmen Rodríguez Martínez, Eskolako Didaktika eta Antolaketako irakasle titularra, Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Malagako Unibertsitatea.
- Cynthia Martínez-Garrido, Hezkuntzako Ikerketa eta Ebaluazio Metodoetako irakaslea, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- Carmen Ferrero Torres, Pedagogoa, Madrilgo Batzarreko diputatu autonomiko ohia eta Getafeko Udaleko hezkuntzako zinegotzi ohia.
- José Luis Pazo Jiménez, Ikasleen Gurasoen Elkartearen Espainiako Konfederazioko (CEAPA) lehendakari ohia.
- Manfred Liebel, Gazteriaren Soziologian katedradun emeritua, Berlingo Unibertsitate Teknologikoa; Haurren Eskubideei eta Haurtzaroari buruzko Kulturarteko Ikasketetan ohorezko katedraduna, Potsdamgo Zientzia Aplikatuen Unibertsitatea; eta Alemaniako Koalizio Nazionalaren Kontseiluko presidenteordea – Haurren Eskubideen Konbentzioa Inplementatzeko Sarea.
- Nimi Hoffmann, Nazioarteko Hezkuntzarako Zentroa, Sussexko Unibertsitatea, Erresuma Batua.
- Iris Duhn, Psikologia Ebolutiboko Fakultatea, Monasheko Unibertsitatea, Australia.
- John Wall, Haurren Ikasketetako katedraduna, Rutgerseko Unibertsitatea, AEB, eta Childism Institutetako zuzendaria.